

Agur unibertsitateari




ARITZ GALARRAGA

kasturtea bukatzeaz da. Ez nahiko genukeen bezala, noski: abentura kitzikagarri gisa hasi zena –benetan, ez nuen uste inoiz Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle izatera iritsiko nintzenik–, akitzen ari da, arin esateko, nahasmenduan. Pandemiaren erruz, bistan da, bestela esperientzia izaten ari baitzen gogobetegarria. Eta pentsatu nahi nuke azken asteotakoa izan dela salbuespena, baina ez ote digun begien bistan jarri dagoeneko bestela bezala gertatzen ari, eta, erremediorik jarzen ez badiogu, etorkizun hurbilean gertatuko dena.

Esplika nadin: birusa zabaltzen hasi zenean, gehienok bezala, lantokira joateari utzi eta etxetik hasi ginen, halamoduz, ez baixeuden horretarako prestatuta –ez pedagogikoki, ez batez ere psikologikoki–. Ikasgela batean berrogeita hamar lagun biltzetik, pasa ginen, ikasle-irakasleon arteko zubi bakar, ordenagailua erabiltzera. Eta, zer nahi duzue esatea, ez da gauza bera. Aurrez aurrekoak ematen dio zentzua irakaskuntzari, el-karreraginarik, ikasleei begietara begiratu eta haien aurpegietan konplizitate keinuak igartzeak, gaitzespenekoak –ados, gehienetan gaitzespenekoak–. Egoera honek zerbait erakutsi badit da plataforma digital bakar batek ere ezin duela ikasgela batean gertatzen dena ordezkatu. Pentsamendua elkarriketan osatzen baita, bestearekiko topaketan. Ez dadila otoi normaltasun bilaka azken asteotan salbuespeneko izan den zera birtual hau.

Baina agian beranduegi gabiltza. Agian ezagutzarako gune behar lukeena jolas-parke bilakatu da jada. Inteligentzia, kritika, desadostasunerako plaza behar lukeena, dibertitzeko leku. Ekintza intelektual eta politikorako foku, tituluak banatzeko makina. Agian ezin itzulizkoak dira Jordi Llovet irakasleak *Adéu a la universitat* lanean esaten dituenak. Auskalo itzuliko ote garen unibertsitateari. Auskalo itzultzen garenean unibertsitateari ba ote dagoen ere. ●



AOVK

“AHT-REN OBRAK BEREHALA ETETEA ESKATZEN DUGU”

“ORAIN ARDURA” EKIMENA

“AHTren obrak berehala etetea eta bere proiektu berriak bertan behera uztea eskatzen dugu. Egun daukagun ohiko tren sarea mantentzearen eta hobetzearen alde egiten dugu. Eta bideratu dadila AHTko inbertsio ekonomikoa premiazkoak diren alorretara: nahikoa langile eta baliabide dituen osasun publiko bat; adinekoen, mendekoen eta hauek zaintzen dituzten pertsonen zaintza; pensio duinak; oinarrizko diru sarrerak guztiontzako; kalitatezko hezkuntza publikoa...”. 2020/05/26

